



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoako Futbol Federazioa

21.ZIRKULARRA

2018-19 Denboraldia

EMAKUMEZKOEN INFANTIL F-8ko ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Infantil F-8ko eskolarteko lehiaketa antolatzen du.

1. PARTAIDETZA

Kirol klubek eta Ikastetxeek parte hartu dezakete.

2. TALDEEN OSAKETA

I TALDEA: OIARTZUN K.E.; HONDARRIBIA F.E.; TOURING K.E.; TRINTXERPE C.D.-INTXAURDI; AÑORGA "A"K.K.E.; SANTO TOMAS LIZEOA "B" K.E.; INTXAURDI "A" K.E. eta ALLERRU K.J.K.E.

II TALDEA: AÑORGA "B" KKE; SANTO TOMAS LIZEOA "A" K.E.; AMARA BERRI K.E.-SAN IGNACIO; INTXAURDI "B" K.E.; ANTIGUA LUBERRI K.E.; MARTUTENE K.E. eta UDARREGI-USURBIL F.T.

III TALDEA: URNIETA K.E.; EUSKALDUNA S.D.; TOLOSA C.F.; OSTADAR S.K.T.; DANENA K.E.; AIZKORRI GOIERRI F.T. eta ARALAR INTXURRE K.K.E.

IV TALDEA: GOIERRI GORRI "A" F.K.; GOIERRI GORRI "C" F.K.; GOIERRI GORRI "B" F.K.; ZESTOA K.B.; ANAITASUNA C.D.; IKASBERRI K.E. eta ORIOKO F.T.

V TALDEA: BERGARA "A" K.E.; MUTRIKU F.T.; ALOÑA MENDI K.E.; BERGARA "B" K.E.; EIBAR S.A.D.; AMAIKAK BAT K.E. eta LEINTZ ARIZMENDI K.E.

3. SAILKAPEN ARAUAK:

1- LEHENENGO FASEA:

5 taldeetan, puntuetara eta bi itzulietara jokatuko da (14 jardunaldi).

2- BIGARREN FASEA:

A- Txapelduen Fasea:

Talde bakoitzeko bi lehenak ($2 \times 5 = 10$) eta hirugarren bi hoberenak (guztira 12) -lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak izango dira hirugarren hoberenak- fase honetarako sailkatuko dira. hamar ekipoko bi taldetan banatuko dira fase hau jokatzeko, bi itzulietara (18 jardunaldi). Lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak izango dira bigarren hoberenak. 12 talde hauek 6 ekipoko bi taldetan banaturik - garaian horretarako deituko den bileran onartuko diren irizpiden arabera - egingo da. Fase hau jokatuko dute, bi itzulietara. (10 jardunaldi).

Talde bakoitzeko lehenengo sailkatuak beste taldeko bigarrenaren aurka eta alderantziz hobekien sailkatutako taldearen etxean partida bakarrera finalerdiak jolastuko dituzte (2019-05-26). Bi partiden irabazleek Finalak jolastuko dute partidu bakarrera eta zelai neutralean. (2019-06-02)

B- Gipuzkoa Kopa:

Gainontzeko taldeek (24 talde), kirol irizpideak eta hurbiltasun geografikoak jarraiki banatutako sei eta bost ekipoko lau taldeetan eta bi itzulietara (10 jardunaldi) Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

Talde bakoitzeko lehenengo sailkatuak ($1 \times 4 = 4$) partida bakarrera finalerdia jokatuko du (2019-05-26). Finalerdi horiek, Euskadiko Futbol Federazioaren araudiaren 101. Artikuluan azaltzen denaren arabera onuradun ateratzen denaren zelai propioan jokatuko dira. Irabazleek Gipuzkoako kopa Finala (2019/06/02) jokatuko dute, partida bakarrera eta zelai neutralean.

4. ADINAK

Txapelketa honetan infantil mailako jokalariek (2005 eta 2006) parte hartu dezakete.

5. LIZENTZIAK

Lizentzien kopuru maximoa 16 eta minimoak 11. Halere denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

6. JOKALARI KOPURUA ZELAI JOKAN

- Gehienez: 8 jokalaria

- Gutxienez: 6 jokalaria

Gutxienezko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalaria lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, naiz eta partida jolastu

7. PARTIDEN IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidek 60 minutuko iraupena izango dute, 20 minutuko 3 zatiekin, eta azken zatian aldaketak libreak izango dira. 20 minutuko bigarren zatian, lehengo zatian parte hartu ez duten ikasleek parte hartu beharko dute.

8. BALOIA

Baloia 4 zenbakikoa izango da eta areto futboleko baloia ez da onartuko.

9. ZELAIAREN ETA PORTERIEN NEURRIAK

Zabalean jokatu da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluzuzena izango da. Ateak 6(langeta) x 2(zutoina) izango dira. Neurri hauek kontutuan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

10. PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko poste bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroa egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

11. PENALTI PUNTUA


9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua

12. ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, bakarrik ateko poste bakoitzetik 3 metrotara

13. JOKOZ KANPOKO EREMEUA

Ateko marratik 13 metrotara ezarriko da.



14. BESTE ARAUAK

Beste arauak, futbol hamaikako lehiaketan dauden berdinak izango dira.

15. ASEGURUAK

Eskolarteko lehiaketa bat denez, Gipuzkoako Futbol Federazioari **ez dagokio** laguntza medikuaren estaldura, beraz lesioren bat gertatuz gero **Gizarte Segurantza Publikora** edo jokalariaren ama edo aitak duen aseguru pribatura joan beharko duzue.

16. ARBITRAJEAK

Talde bakoitzak epailearen eginkizuna beteko duen pertsona bat (edo gehiago) eduki beharko du. Etxean jokatzeko duen taldea izendapenez eta ordainketaz arduratuko da.

17. LIZENTZIAK

Behin betiko lizentziak bideratzen diren bitartean, Eskualde-Ordezkaritzak sinatu behar dituen jokalarien zerrendak beharrezkoak izango dira lehiaketan parte hartzeko.

18. PARTIDEN EMAITZAK

Partida bakoitzaren ondoren, aktak Gipuzkoako Futbol Federazioari bidali beharko dira, asteleheneko 18:00ak baino lehen emaitzak edukitzea beharrezkoa da eta.

19. DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Institutio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua juridikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsioa aurkez daiteke.

20. KADETE MAILAN JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA

Onartuko da, ezinbesteko egoeratan, bigarren urteko jokalaria infantilen parte hartzea kadete mailan, ondorengo izapidek aldeztu aurretik betetzen badira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Institutuziotik baimena izatea.

- Azterketa Medikuaren ziurtagiria aurkeztea
- Mutualitatean afiliatua egotea
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

21. PARTE HARTZE BIKOITZ HONEN ARAUZKO ONDORIOAK

20. puntuan aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil jokalariek segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantilean bidegabeki jokalaria-zerrendan sartu izan dela kontsideratuko da**, aste buruan bi partiduetan parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetan izan.

Donostia, 2018ko urria
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

-Lehendakaria-
Juan Luis Larrea Sarobe